



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Departamento de Participación, Transparencia y Centros Cívicos  
*Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saila*

Servicio de Participación Ciudadana  
*Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua*

# **HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO UDAL PLANA – GASTEIZKO UDALA**

**2020-2023 legealdirako bide-orria**



## Eredua finkatzea eta hobetzea

---

Legealdian zehar hainbat aldaketa egin dira herritarren parte-hartzerako udal-ereduan eta proiektu berriak ere jarri ditugu martxan. Horren ondoren, lau urteko legealdi berri bati ekingo diogu, eta gogor lan egingo dugu eredu hori finkatzeko, etengabeko hobekuntza-prozesu baten baitan.

Horretarako, Gizarte Kontseiluak legealdi berri honetarako egin dituen eta Planaren ildo estrategikoei barne hartzen dituzten hobekuntza-proposamenak izan beharko ditugu kontuan, baliagarriak izango baitira oraindik. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) egindako «Herritarrek Parte Hartzeko Behatokiaren» diagnostikoko datuak txertatu beharko dira.

Gainera, Udalak zenbait ekintza garatu beharko ditu gaur egun dauden kanalen bitartez parte hartzen ez duten elkarrengana eta herritarren beste kolektibo batzuegana hurbiltzeko, kanal horiek daudela ez dakitelako edo ez parte hartzea erabaki dutelako. Horrela, Udalak horien arazoak eta proposamenak ezagutu ahal izango ditu eta, ahal den heinean, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak txertatu ahal izango ditu, planteatutako gaien inguruko ikuspegi desberdinak dituzten herritarren kolektibo gehiagok parte hartu ahal izateko.

**Dokumentu hau beste aurrerapauso bat da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izan dadila lortzeko bide luze horretan. Talde politikoen arteko topagune bat da, abiapuntu bat.**

### Plan hau, zertarako?

- Udal-gobernuaren eta udalbatza osoaren jarduerak gidatzeko, betiere herritarren parte-hartzea sustatu eta garatzeko xede horri begira.
- Beharrezko aldaketak sustatzen jarraitzeko herritarren artean nahiz langile tekniko eta politikoen artean, eta egituretan eta antolamenduan, betiere udal-kudeaketan parte-hartzearen eta elkarlanaren kultura indartzeko helburuarekin.
- Herritarren parte-hartzearekin loturiko ekintza guztiak planifikatzeko eta antolatzeko.
- Erabakiak hartzeko orduan herritarren parte-hartzeak benetako eragin bat izateko.
- Aldaketetara egokituko den eredu malgu bat izateko, eta ebaluazioa abiapuntutzat hartuta hobekuntzak etengabe egin ahal izateko.
- Herritarrak parte hartzera bultzatzeko, informazioa hobetuz eta parte-hartzearen inguruko emaitzak agerikoago eginez.

## Planak oinarri hartzen dituen printzipioak

### 1. Herritarren parte hartzeko eskubidea

Aipatutako eskubidea hainbat mailatako lege-testuetan aitortzen da —Espainiako Konstituzioan, Autonomia Estatutuan, Toki Araubideko Oinarrien Legean—, baita udal-araudian ere. Ezin ditugu ahaztu, halaber, Europar Batasuneko hainbat erakundek horren inguruan egiten dituzten gomendioak.

### 2. Ardura politikoa

Oinarrian lege- eta arau-esparru bat izatearekin ez da nahikoa. Horrez gain, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzearen sustatzaile nagusiak erakundeetako arduradun politikoak izatea —kasu honetan, Gasteizko Udalekoak—, eta kanalak eta tresnak ezarri eta herritarren eskura beharrezko baliabideak jartzea.

### 3. Kontuak ematen dituen Gobernu Irekia eta gardena

Plan honek gobernu irekia izatearen hautua egin du, hau da:

«Herritarrekin elkarreagina izateko zabaltzen den gobernu. Bertan, herritarrak gai dira politikei edo proiektu politikoei buruzko proposamenak egiteko, Udalarekin elkarlanean zerbitzuak sortzen parte hartzeko, eta aktiboki esku hartzeko kudeaketari jarraipena eginez, hura kontrolatuz eta ebaluatuz. Horrek gardentasunarekiko eta kontu-ematearekiko konpromisoa dakar, eta kanalak eta erremintak eskaini behar dira parte-hartzea eraginkorra izan dadin eta udal-politiketan eragina izan dezan».

### 4. Formak eta emaitzak aldatzea

Planaren panorama sozialak, ekonomikoak eta politikoak asko aldatuko du administrazio publikoen, teknikarien eta herritarren arteko harremana. Lankidetzak eta elkarrizketa-kultura berriak ere sortuko dira ondorioz.

Herritarren parte-hartzeak politika publikoen kalitatea areagotzen duela eta herritarren atsekabea gutxitzen duela uste duen lidergo politikoa behar da.

Udal-zerbitzuen diseinu, kudeaketa eta ebaluazioaren esparruan herritarren parte-hartzeari irekita dauden teknikariak behar dira. Haien beste funtzio bat izanik, modu egokian prestatuta eta gaituta egon behar dute, eta horretarako beharrezko denbora eta baliabideak izan behar dituzte.

Era berean, bestelako gizarte zibil bat behar da, politika publikoak diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko ardura hartzen duena.

### 5. Prozesu bat da hau



Plana ibilbide mailakatua da eta etapak xahutu gabe egin behar da. Ekintza eta erabaki batzuk behar-beharrezkoak izango dira Plana egokitzeko eta hobetzeko, ezinbestekoak Plana ahalbidetzeko (bultzada eta lidergoa, adostasun politikoa garapenean, behar bezalako komunikazioaren bitartez plana herritar guztiei helarazteko borondatea, diru-eta giza baliabideen hornidura); eta beste batzuk, aldiz, apurka-apurka egingo dira (organoak eta prozesuak zehazteko eredu banakako parte-hartzea txertatzea, parte-hartzea Udalaren arlo gehiagotan txertatzea, udal mailan herritarren erakundeei laguntza emateko irizpideak normalizatzea: lokalak, dirulaguntzak eta beste baliabide batzuk, parte hartzeko kanal berriak eta abar).

Azkenik, zenbait alderdi landuko dira, eragile desberdinen artean adostasuna lortu ondoren: herritarren parte-hartzerako araudi berria.

Beraz, beharrezkoa da konfiantza-ariketa egitea eta prozesu horiek duten berezko ziurgabetasuna kudeatzeko ahalegina egitea, jakinik guztion artean nahi eta behar ditugun aldaketak lortuko ditugula.

## **Ildo estrategikoak**

### **1. ildoak: Parte-hartzea udalerriko ardatz estrategiko gisa**

Parte-hartzea ezinbestekoa da politika publikoen kalitatea hobetzeko, betiere pertsonak eta haien premiak eta interesak erdigunean jarritz.

Gero eta konplexuagoa eta anitzagoa den gizarte honetan behar-beharrezkoa da herritarrek aukera izan dezatela eragiten dieten gaien inguruan eragiteko, eztabaidatzeko, koproduzitzeko eta erabakitzeke. Herritarrek herri-administrazioei eskatzen diete gardentasun handiagoa erakutsi dezatela, baina, baita ere, entzunak izan daitezela. Udal-kudeaketan gehiago parte hartu ahal izatea eskatzen dute, eta horretarako, erantzunkidetasun handiagoa behar da.

Gainera, herritarren parte-hartzea zeharkako funtsezko elementu bat da; NBEren 2030erako strategiaren Garapen Iraunkorrerako Helburuetan dago (GIH), eta Udala bat dator helburu horiekin. «Bakea, Justizia eta Instituzio Sendoak» azpimarratu beharko genuke (36. GIH), bertan, herritarren parte-hartzea sustatzea proposatzen baita, erakunde eraginkorren eta gardenen testuinguruan.

Hori dela eta, herritarren parte-hartzeak udal-gobernuaren ardatz estrategiko bat bihurtu behar du, Alkatetza buru izango duena eta gobernu-talde osoa barne hartuko duena. Halaber, denboran iraunkor bihurtuko duen adostasun zabal bat behar da udal-talde politiko desberdinen artean.



Apustu estrategiko horren garapenak aldaketa bat eragin du gobernatzeko moduan; izan ere, irekiagoa, demokratikoagoa, gardenagoa eta parte-hartzaileagoa da orain.

Erabakitako jarduerak:

- Herritarren Parte-hartzerako Plana 2020-2023 legealdirako bide-orria onartzea, Legealdiko Plan Estrategikoarekin bat etorritz.
- Udal-talde politiko guztiek ordezkari izango duten lantalde bat sortzea, Herritarren Parte-hartzerako Udal Planaren jarraipena egiteko. Horretarako, ondorio eta proposamen guztiak jakinaraziko dira Ogasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen bitartez.
- Udal-sail guztiek ordezkari izango duten lantalde tekniko bat sortzea, udaletxean, herritarren parte-hartzearen sustapena eta zeharkakotasuna bermatzeko.
- Talde politiko guztien eta herritarren ekarpenak jasoko dituen parte hartzeko agenda bat ezartzea. Agenda horrek honako gai hauek hartuko ditu barne, besteak beste:
  - Ordenantza Fiskalei, Tasei eta Prezio Publikoei buruzko herritarren arteko eztabaida (urtean behin).
  - Aurrekontuen Proiektuari buruzko herritarren arteko eztabaida (urtean behin).
  - Udaleko planen eta programen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa.
  - Ekimen instituzionaleko herri-galdeketen proposamenak.
  - Eta legealdi honetarako gai zehatz bat, gutxienez, sail bakoitzaren aldetik.
- Herritarrek parte hartzeko organoek egindako proposamen eta informazio-eskaera guztiei arrazoituriko erantzun bat emateko gobernu-taldearen konpromisoa, gehienez ere hilabete bateko epean eta herritarrek ulertzeko moduan. Gizarte Kontseiluak egindako arauzko txostenei berariaz erantzungo zaie.
- Informazio- eta komunikazio-ekintzak egitea, herritarrek Plana eta parte hartzeko kanalak eta erremintak ezagutu ditzaten, eta horiei parte hartzera gonbidatzeko.
- Honako jarduketak hauek egin behar dira araudiaren egokitzapenari dagokionez:
  - Parte hartzeko organoei udalbatzarretan mozioak zuzenean aurkezteko aukera ematea.
  - Mejuarando Vitoria-Gasteiz Hobetuz Programarako esparru-arautegi bat egitea.
  - Herritarren parte-hartzearekin lotutako araudiak eguneratzea, horiek premia berrietara egokituz:
    - Herritarren Parte-hartzerako Araudia
    - Udalbatzaren Araudi Organikoa
    - Herri Galdeketen Araudia



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

- Udal-gobernuak hizketakide gisa jardungo du beste herri-administrazio batzuekin, herritarrek parte hartzeko organoetan planteatutako gaiek bere eskumenak gainditzen dituztenean.
- Planari beharrezko baliabideak hornitzea, 5. ildoan jasotzen den moduan.

## **2. ildoak: Herritarren parte-hartzerako bideak eta tresnak**

Bide bat prozedura bat da. Ildo horretatik, banakako parte-hartzerako bideekin eta antolatutako herritarrentzako bideekin egingo dugu topo: herri-erakundeak.

Ildo honek garatzen ditu gaur egungo parte-hartzerako bideak sendotzeko eta horien funtzionamendu egokirako tresnak hornitzeko planteatzen ditugun prozesuak.

Oraindik ere elkarteak eta herritarren kolektiboak dira herritarrek parte hartzeko eredu hori sostengatzen dutenak. Horien ahalegina eta dedikazioa eskertzeko modukoak dira, ezinbesteko lotura gisa jarduten baitute herritarren eta Udalaren artean, eta horrek erantzunkidetasuna errazten du.

Herritarrek organo eta prozesu parte-hartzaileetan banaka parte hartzeko aukera ere ematen du gaur egungo ereduak, eta helburu hori bere horretan mantenduko da legealdi honetan.

Kasu batean edo bestean, herritarrek herritarren partaidetza-organoen egunerokotasunean protagonismo handiagoa izan dezatela lortu nahi da, horien agenda eta jardueraren erritmoa garatuz. Era berean, horrek udal-politikan eragina izatea lortu nahi da, hirian bizi diren eta hiria partekatzen duten pertsonen premietara egokitutako ekintzen bitartez.



## **BIDEAK:**

---

### HERRITARREN POSTONTZIA

- Tresna hau sustatzea, herritarrek parte hartzeko beste bide bat delako. Horrela, herritarrek postontzi hori erabili ahal izango dute Udalari proposamenak egiteko eta herritarrek parte hartzeko organoetako eztabaida irekietan eta egingo diren bestelako prozesu parte-hartzaileetan parte hartzeko.

### HERRITARREK PARTE HARTZEKO ORGANOAK: AUZOGUNEAK, ELKARGUNEAK ETA GIZARTE KONTSEILUA

- Herritarrek parte hartzeko organo bakoitzak erreferentziazko gobernu-taldeko zinegotzi bat izango du, Gizarte Kontseiluaren kasuan salbu. Izan ere, azken hori arduratuko da jorratutako gaien jarraipena egiteaz eta Udalaren erantzunak aurkezteaz.
- Organoek funtzionamendurako gidaliburu bat izango dute. Horri esker, herritarrek uneoro jakin ahal izango dute zer egiten duten, nork parte har dezakeen, nola funtzionatzen duten edo zer jokabide-arau dituzten, besteak beste.
- Zenbait tresna gaituko dira proposatutako gaien jarraipena egiteko, saioen balorazioa egiteko eta udal-politikan duten eragina baloratzeko.
- Zerbitzu osagarriak gaituko dira laguntza-premia desberdinak dituzten herritarrek (sentsorialak, fisikoak, pertsona zaharren edo haurren zaintza...) parte hartu ahal izateko.
- Gizarte Kontseilua arduratuko da bertan ordezkaturik dauden gainerako partaidetza-organoak koordinatzeaz.
- Araudiak egokituko dira, organoek ere udalbatzarrean agertzeko aukera izan dezaten.

### PARTE HARTZEKO PROZESUAK

- Bereziki garrantzitsuak diren udal-planak (Berdintasuna, Gazteria, HAPO, Mugikortasuna...) diseinatzeko eta ebaluatzeko orduan, prozesu parte-hartzaile bat egin beharko da. Horretarako, behar adina denbora emango da eta Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuak bere oniritzia eman beharko du.
- Prozesu parte-hartzaileetarako gidaliburu bat prestatuko da.
- Parte hartzeko agendaren bitartez, gobernu-taldeak legealdian zehar egingo diren partaidetza-prozesuak jakinaraziko ditu. Agenda hori talde politiko guztiekin eztabaidatuko da aurrez.

### HERRITARREN TXANDA



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

- Informazioa hobetuko da. Horrela, herritarrek behar bezala jakingo dute nola erabili herritarren txanda, batzordeetan nahiz udalbatzarretan.
- Elkarguneei, auzoguneei eta Gizarte Kontseiluari udalbatzarretan parte hartzeko aukera ematea.

## MEJORANDO VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ

- Programa honen bitartez, herritarrek proiektuak edo inbertsioak proposatu ahal izango dituzte. Era berean, bozketetan parte hartu ahal izango dute, aurkeztutako proposamenei lehentasuna emateko.
- Programa honentzako esparru-araudi bat onartuko da.
- Urteko partida espezifiko bat onartuko da programa honetarako, betiere Partaidetza, Gardentasun eta Gizarte Etxeen Saileko aurrekontuaren barnean.
- Udal-talde politikoek adostuko dituzte partidaren zenbatekoa eta programaren aldizkakotasuna.
- Udalak hitzematzen du herritarrek aukeratutako proiektu guztiak gauzatuko dituela.

## HERRITARREN KONTSULTAK

Aurreko legegaldian, herritarren kontsultetarako udal-araudi bat onartu zen, Udalak zuzenean parte hartzeko bide horrekin duen konpromiso gisa. Legealdi honetan, bide horretan jasotako urratsak eta epeak hedatu eta ezagutaraziko dira, herritarrek ekimenetik kontsultak planteatzeko aukera izan dezaten.

## BESTE BIDE BATZUK

Gaur egun dauden parte hartzeko bideak hobetzeaz eta sustatzeaz gain, herritarrak gerturatzeko beste kanal batzuk berri eta bilatuko dira, batik batik zaugarritasun-egoeran dauden herritarrak gerturatzeko. Horrela, horiek ere aukera izango dute beren premiak adierazteko eta udalaren gai publikoen inguruan eztabaidatu eta erantzunkide izateko.

## TRESNAK:

---

Parte hartzeko tresnek honako helburu hauek dituzte:

- Organoen eta prozesu parte-hartzaileen funtzionamenduan laguntzea.
- Informazioa, komunikazioa eta datuen erregistroa erraztea.
- Parte hartzeko espazio birtualak garatzea.

Erabakitako jarduerak:





- Organoei eta prozesu parte-hartzaileei buruzko informazioa hobetzea.
  - Gaur egun partaidetza-organoetan parte hartzen ez duten herritarrei eta gizarte-kolektiboek galdeketa bat egitea, indarrean diren herritarrek parte hartzeko bideak zenbat ezagutzen dituzten jakiteko.
  - Udalaren webgunea herritarrek parte hartzeko organoen premietara egokitzea informazioari eta kudeaketari dagokionez.
  - Parte hartzeko organoek planteatutako gaiek zer ibilbide duten jakinaraztea.
  - Herritarren postontzia auzoguneetan, elkarguneetan eta partaidetza-prozesuetan eztabaidatzen ari diren gaiekin lotzea, parte-hartze birtuala erraztuz.
  - Udal-informazioa egokitzea, argia eta erraza izan dadin.
- Informazio- eta komunikazio-bideak dibertsifikatzea.
  - Gizarte-etxeak modu egokian erabiltzea, informazioaren igorleak eta herritarren proposamen eta eskaeren hartzaileak diren heinean.
  - Udal-tresnak: muppiak, pantailak, web-orria...
  - Elkarteak eta Materiala Mailegatzeko Zerbitzua.
  - Adineko pertsonentzako zentro soziokulturalak.
  - Udalaren buletin digitalak.
  - Elkarrekin, info.
  - Irratsaioa.
  - Herritarrek parte hartzeko organoen jarduerari buruzko prentsa-oharrak.
- Adierazle-sistema bat ezartzea, herritarrek parte hartzeko organoek udal-erabakietan zer nolako eragina duten neurtzeko. Sistema hori publikoa izango da.
- Udal-programa desberdinak diseinatzeko eta prestatzeko orduan kontuan hartuko diren **kalitatezko prozesu parte-hartzaileak** egin daitezela sustatzea eta erraztea, herritarren parte-hartzerako agendaren bitartez koordinatuz.
- Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua udal-sailentzako beste tresna bat izango da herritarrek parte hartzeko organoak kudeatzeko eta prozesu parte-hartzaileak diseinatzeko orduan.
- Gasteizko Udalak sareetan parte hartzea, Kaleidos eta OGP Euskadin, adibidez. Horiek elkarrekin ikastea eta esperientziak partekatzea ahalbidetuko dute partaidetza-politikei eta gobernu irekiari dagokienez.



### **3. ildo: Parte hartzeko kultura hobetzea: informazioa, komunikazioa eta prestakuntza**

Ildo honen edukiak honako balio hauetan oinarritutako parte-hartzeko kultura sustatu nahi du eremu politikoan, teknikoan eta herritarren artean: elkartasuna; konpromiso soziala; gobernu onaren erantzunkidetasuna; eskubideekiko errespetua eta herritarren ekintza aktiboa, eskubideekin eta zereginekin lotuta.

Erabakitako jarduerak:

- «Herritartasun Eskola» sustatzea eta haren programa udal-mailako gainerako eskolekin eta zerbitzuekin koordinatzea.
  - Herritarrek parte hartzeko organoetako ordezkari, ordezkari politikoei eta udal-teknikari bideratutako prestakuntza-ekintza espezifikoak sustatuko ditu.
  - Beste udal-erri batzuetako partaidetza-esperientziak ezagutzea.
  - Parte hartzera deituak sentitzen ez diren kolektiboentzako (gazteak, migratzaileak, adineko pertsonak, dibertsitatea duten pertsonak edo gizarte-zaurgarritasun egoeran bizi direnak) informazio- eta prestakuntza-ekintzak, beste udal-zerbitzu eta gizarte-eragile batzuekin elkarlanean.
  - Herritarrentzako informazio- eta prestakuntza-ekintzak, udal-kudeaketaren alderdi nagusiei dagokienez:
    - Udal-eskumenak
    - Nork eta nola hartzen dira erabakiak?
    - Udal-aurrekontuak, gastuak eta diru-sarrerak...
    - Tasen eta prezio publikoen ordenantza
    - Hitzordua norekin...
- **Herritarren sentsibilizaziorako kanpaina** bat egitea parte hartzeko eskubidea erabiltzera bultzatu eta sustatzeko.
- Kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren erremintak erabiliz, parte hartzeko organoetan ordezkari gutxien dituzten kolektiboekin eta sektoreekin (gazteak, pertsona migratzaileak...) harremanetan jartzea, horiei informazioa eskaintzeko eta parte hartzera animatzeko, betiere haien premiak eta interesak kontuan hartuta.



- Pertsonak eta kolektiboek partaidetza-organoetan egiten duten lana aitortzen duten jarduerak.
- Udalaren barruan herritarrek parte hartzeko dauden jarduera, bide eta prozesu guztiei buruzko **informazio garbia eta erraza** eskaintzea, hari dagokion balioa emateko.
- Herritarrei eta udalerriko elkarte-sareari bideratutako kanpaina. Horrela, parte hartzeko erreminten inguruan zer iritzi duten jakingo da, eta eremu horietan parte hartzeko (edo ez parte hartzeko) motibazioak eta arrazoiak jasoko dira, baita hobetzeko egiten dituzten proposamenak ere.

#### **4. ildoak: Herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetzea**

Herritarren parte-hartzearen kalitatean honako hauek eragiten dute:

- Errealitatearen ezagutza partekatua, bertan ondo esku hartu ahal izateko.
- Ebaluazioaren eta tresnen plangintza, Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko.
- Helburuen araberako aurrerapena, hau da: diagnostikoa egitea, plangintza egitea, kudeatzea, ebaluatzea eta berriz diseinatzea.
- Eraginkortasuna, ikaskuntza eta inplikaturako pertsonen asebetetzea hobetzea ebaluazioaren praktikaren bidez.

Erabakitako jarduerak:

- Udalerrian herritarren parte-hartzearekin lotuta dauden gaiei buruzko urteko azterketa bat egitea Herritarrek Parte Hartzeko Behatokiaren aldetik. Horretarako, lankidetzaren hitzarmen bat egingo da Euskal Herriko Unibertsitatearekin, 2019-2023 aldirako.
- Elkarguneen eta auzoguneen gidaliburu bat egitea, honako informazio hau jasoko duena: horien definizioa, esku hartzen duten eragileak, metodologiak eta ebaluazioa.
- Urtero, organo bakoitzaren ebaluaziorako saio monografiko bat egitea, Gizarte Kontseiluan adostutako irizpideak kontuan hartuta.
- Urteko partaidetza-memoria egitea. Bertan, honako gai hauei buruzko datuak eta informazio interesgarria jasoko da: herritarrek parte hartzeko organoak, parte hartzeko prozesuak, partaidetza-organoek aurkeztutako mozioak, intzidentzia eta lotutako programak.



- Gizarte Kontseiluak betetzen duen eginkizuna sendotzea, udal-organoen sistema koordinatzeko eta Herritarren Parte-hartzerako Planaren jarraipenerako organoa den heinean.
- Egiten diren prozesu parte-hartzaile guztietan, onartu diren eta onartu ez diren (eta horretarako arrazoien) proposamenen emaitzak itzultzea.
- Generoaren ikuspuntutik, herritarrek parte hartzeko udal-organoen parte-hartzeari buruzko diagnostiko bat egitea.

## **5. ildo: Planerako baliabideak**

Plan honi beharrezkoak eta egokiak diren baliabideak eskaini behar zaizkio planteatzen diren programak eta ekintzak ezarri ahal izateko. Horretarako, ikuspegi orokor bat behar da, betiere erabili behar diren baliabideak ahalik eta gehien koordinatzeko, bateratzeko eta errentagarri egiteko helburuarekin.

Une honetan Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuari dagokio funtzio hori. Dena den, azpimarratu behar da parte-hartzeak zeharkako lan-ildo bat izan behar duela udaletxean, eta beraz, ez da Zerbitzu hori izango gai honen ardura duen bakarra. Gainerako sailek ere ardura hori partekatu behar dute, beste udal-plan batzuetan gertatzen den moduan: Berdintasuna, Euskara, Gazteria eta abar.

Erabakitako jarduerak:

- **Elkarteei eta herritarrentzako beste kolektibo batzuei laguntzea**

Dokumentu honetan argitu den moduan, Udalaren herritarren parte-hartzerako eredia udalerrian lan egiten duten kolektibo eta elkarte askoren inplikazioan eta lankidetzan oinarritzen da batez ere. Horretarako, honako hau proposatzen da:

- Asoziazionismoari eta herritarren parte-hartzeari buruzko informazioa izan nahi duten elkarteentzako eta herritarrentzako INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA zerbitzua sustatzea.
- Gizarte-etxeetan informazio- eta hedapen-kanpaina bat egitea, elkarguneetan eta auzoguneetan parte hartzeko.
- Honako programa hauek indartzea:



- ELKARTEAK.INFO, herritarrei, banaka nahiz elkarteetan bilduta, gaur egun dauden elkarten eta kolektiboen berri ematea, eta horien programak eta proposamenak jakinaraztea. Plataforma hau aldian behin eguneratu beharko da.
- ASTEKO IRRATSAIOA. Bertan, herritarren parte-hartzearekin lotuta dauden udal-esparruko albiste garrantzitsuenak jakinaraziko dira.
- ELKARTEEN ETXEAK
  - Lokala egoitza sozial gisa uzteko deialdia ebatzea, gaur egun dauden espazioak optimizatuz.
  - Aldian behin erabiltzeko aukera hedatzea.
  - Espazio berrien premiak eta horiek lortzeko aukera aztertzea, programa areagotu ahal izateko.
  - Beharrezkotzat jotzen diren mantentze-lanak egitea.
- IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA MAILEGUAN UZTEKO ZERBITZUA
  - Materialak eta espazioa elkarten gaur egungo premietara egokitzea.
- PROGRAMENTZAKO DIRULAGUNTZAK
  - Auzo-elkarte eta auzo-federazioentzako dirulaguntzen eta lokalen deialdia.
  - Kolektiboek eta elkarteek sustatutako herritarren parte-hartzerako proiektuak. Programa horren berri ematea.

#### ○ **Beharrezko giza baliabideak**

Garrantzitsua da udal-sailek beharrezko giza baliabideak izan ditzatela herritarren parte-hartzearekin lotutako ekintzak garatu ahal izateko, baita horretarako denbora nahikoa izan dezatela ere.

Bestalde, gobernu-taldeko zinegotziek herritarrek parte hartzeko organoen funtzionamendua erraztu behar dute, baita prozesu eta erreminta parte-hartzaileen garapena ere.

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuak honako laguntza hau eskainiko die udal-sailei:

- Prozesu parte-hartzaile bakoitzean talde eragilea osatzen duten sailen eta zerbitzuen sailarteko koordinazioa.
- Prestakuntza.
- Aholkularitza eta laguntza prozesu parte-hartzaileak diseinatzeko eta gauzatzeko orduan, egin edo zehaztuko den erreferentziazko gidaliburuaren arabera.
- Aholkularitza eta laguntza herritarrek parte hartzeko organoetako idazkaritzei.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Gainera, Herritarrentzako Parte-hartzerako Zerbitzutik zuzenean kudeatuko dira honako hauen idazkaritzak:

- Gizarte Kontseilua
- Herritarren Parte-hartzerako Elkargunea

○ **Baliabide teknikoak**

- Udalaren webgunea egokitzea, ez komunikazio-erreminta baten gisa bakarrik, parte hartzeko eta itzulketarako beste kanal baten gisa baizik.
- Herritarren postontzia sustatzea, parte hartzeko erreminta gisa.
- Parte hartzeko organoetan ordezkarien eta parte-hartzaileen arteko barne-komunikazioa errazteko online erreminta bat garatzea, baita garatuko diren beste prozesu parte-hartzaile batzuetan erabiltzeko ere.
- Herritarrek egindako proposamenen jarraipena egitea.
- Parte hartzeko organoek izan duten eraginaren barometro bat martxan jartzea ebaluazio-adierazleak oinarritzat hartuta.
- Hedapen- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.

○ **Jarduketan gutxi gorabeherako egutegia**

		URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
1. ILDOA: Parte-hartzea udalerriko ardatz estrategikoa den heinean	Herritarren Parte-hartzerako Plana 2020-2023 legealdirako bide-orria onartzea, Legegintzaldiko Plan Estrategikoarekin bat etorriz												
	Udal-talde politiko guztiek ordezkari izango duten lantalde bat sortzea, Herritarren Parte-hartzerako Udal Planaren jarraipena egiteko	☑											
	Lantalde tekniko bat sortzea												
	Parte hartzeko agenda ezartzea												
	Informazio- eta komunikazio-ekintzak egitea, herritarrek Plana ezagutu dezaten												
	Herritarren parte-hartzearekin lotutako araudiak eguneratzea												
	Planari beharrezko baliabideak hornitzea	☑											

**UR'TOTSMAF API MAIEKAUZTABUIRAURFAZAABE**

2. ILDOA: Herritarren parte-hartzerako bideak eta erremintak	HERRITARREN POSTONTZIA sustatzea, parte hartzeko beste bide baten gisa												
	Herritarrek parte hartzeko organoen funtzionamendurako gidaliburua	☑											
	Organo bakoitzerako erreferentziako zinegotziak	☑											
	Proposatutako gaien jarraipena egiteko, saiok baloratzeko eta udal-politiken eragina ezagutzeko erremintak												
	Parte-hartzea errazteko zerbitzu osagarriak	☑											
	Prozesu parte-hartzaileetarako esparru-arautegi bat prestatuko da												
	Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz (MVGH) programarako esparru-arautegi bat onartuko da												
	MVGH programarako urteko partida zehatza	☑											
	Berritzea eta kanal berriak bilatzea												
	Organoei eta prozesu parte-hartzaileei buruzko informazioa hobetzea												
	Gaur egun organoetan parte hartzen ez duten herritarrei eta gizarte-kolektiboek galdeketa bat egitea												
	Udalaren webgunea herritarrek parte hartzeko organoen premietara egokitzea												
	Parte hartzeko organoek planteatutako gaiak zer ibilbide duten berriaz jakinaraztea												
	Informazio- eta komunikazio-bideak dibertsifikatzea												
	Adierazle-sistema bat ezartzea, herritarrek parte hartzeko organoek udal-erabakietan zer nolako eragina duten neurtzeko	☑											
	Kalitatezko prozesu parte-hartzaileak egin daitezela sustatzea eta erraztea												
	Gasteizko Udalak sareetan parte hartzea, Kaleidos eta OGP Euskadin, adibidez												

**URT OTS MAR API MAI EKA UZT ABU IRA URR AZA ABE**

3. ILDOA: Parte hartzeko kultura hobetzea: informazioa, komunikazioa eta prestakuntza	«Herritartasun Eskola» sustatzea												
	Kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren erremintak erabiliz, partaidetza-organoetan ordezkari gutxien dituzten kolektiboekin eta sektoreekin (gazteak, pertsona migratzaileak...) harremanetan jartzea												
	Aldian behin, jardura guztiei buruzko informazio garbia eta erraza eskaintzea												

4. ILDOA: Herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetzea	Herritarrek Parte Hartzeko Behatokia												
	Urtero, organo bakoitzaren ebaluaziorako saio monografiko bat egitea												
	Urteko partaidetza-memoria egitea												

○